# BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS

| Izaera bereziko administrazio kontratua | Contrato administrativo de carácter especial |
|---|---|
| **Xedea:** Zumaiako udal ordularien mantentze zerbitzua kontratatzea | **Objeto:** Contratación del servicio de mantenimiento de los relojes municipales de Zumaia |
| **Prozedura irekia**<br>**Izapidea: Ohikoa** | **Procedimiento abierto**<br>**Tramitación: Ordinaria** |

| | |
|---|---|
| **1.- KONTRATUAREN XEDEA.**<br><br>Agiri honen xedea da finkatzea zer baldintza tekniko behar diren erlojuen eta dagozkien ekipoen mantentze, zaintza, aldizkako berrikuspen eta koponketa zerbitzua kontratatzeko.<br><br>▪ **San Pedro elizako erlojua**:<br><br>Sistema nola osatuta dagoen:<br>1 aginte zentro<br>1 antena<br>1 minuteria<br>2 tiro motor, C motakoak<br>4 iraulketa motor<br>1 maniobra kaxa<br><br>▪ **Parolbideko erlojua-termometroa**:<br><br>Sistema nola osatuta dagoen:<br>- 1 termometro, alde bietakoa<br>- 1 erloju, alde bietakoa<br><br>▪ **Udaletxeko erlojua eta karilloia**<br><br>Kontratua indarrean dagoen bitartean aukera izango du Udalak kontratistari beste udal erloju batzuen mantentzea agintzeko ere. | **1.- OBJETO DEL CONTRATO.**<br><br>El presente pliego tiene por objeto fijar las condiciones técnicas para la contratación del servicio de mantenimiento, conservación, revisiones periódicas y reparación de los relojes y sus correspondientes equipos.<br><br>▪ **Reloj de la iglesia de San Pedro Apóstol**:<br><br>Composición del sistema:<br>1 central de mando<br>1 Antena<br>1 Minutería<br>2 Motor de tiro tipo C<br>4 Motores a volteo<br>1 caja de maniobras<br><br>▪ **Reloj-termómetro paseo del faro**:<br><br>Composición del sistema:<br>- 1 Termómetro a dos caras<br>- 1 reloj a dos caras<br><br>▪ **Reloj y carillón del edificio del Ayuntamiento**<br><br>Todo ello sin perjuicio de otros relojes municipales cuyo mantenimiento pueda ser encargado al contratista por parte de este Ayuntamiento durante la vigencia del contrato. |
| **2.- KONTRATUAREN AURREKONTUA.**<br><br>2.800,00 € kontratuaren urte bakoitzeko, BEZ barne. Guztira, 6 urterako (4 urte gehi 2ko luzapena) zenbatekoa 16.800,00 €-koa da, BEZ barne. | **2.- PRESUPUESTO DEL CONTRATO.**<br><br>2.800,00 € por cada año de contrato, IVA incluido. Para el total de los 6 años (cuatro más dos de prórroga) el importe es de 16.800,00€ IVA incluido. |
| **3.- KONTRATUAREN IRAUPENA.**<br><br>Kontratua formalizatzen denetik hasita lau urte, bi urtez luzatzeko aukerarekin. | **3.- DURACIÓN DEL CONTRATO.**<br><br>Cuatro años a contar desde la formalización del contrato con una prorroga ampliable a dos años más. |

| | |
|---|---|
| **4.- KONTRATUAREN LUZAPENA.** | **4.- PRÓRROGA DEL CONTRATO.** |
| Luzapena gauzatzeko bi aldeek ados egon beharko dute, eta kontratazio organoak hori adierazteko berariazko ebazpena egin beharko du. | La prórroga se efectuará por mutuo acuerdo de las partes debiendo recaer resolución expresa en tal sentido por el órgano de contratación. |
| **5.- ORDAINTZEKO MODUA.** | **5.- FORMA DE PAGO.** |
| Kontratistak eskubidea du benetan egindako lanen ordaina jasotzeko, hitzartutako prezioen arabera, eta sinatutako kontratuari, onartutako aldaketei eta Udalak idatziz emandako aginduei lotuta.<br><br>Hilabete bakoitzeko lehen bost egunetan enpresa esleipendunak Udalaren erregistroan aurkeztu beharko ditu aurreko hilabetean erlojuak mantentzeko lanei dagozkien laneko partea eta faktura. Udalaren zerbitzu teknikoek ontzat ematen badituzte, faktura aurkeztu eta hurrengo 30 egunen barruan ordainduko da. | El contratista tiene derecho de abono, con arreglo a los precios convenidos, de los trabajos que realmente se ejecute, con sujeción al contrato suscrito, a sus modificaciones aprobadas y a las órdenes dadas por escrito por este Ayuntamiento.<br><br>Dentro de los cinco primero días de cada mes la empresa adjudicataria deberá presentar en el Registro de este Ayuntamiento el parte de trabajo y la factura correspondiente al mantenimiento de los relojes durante el mes inmediatamente anterior. El abono efectuará previo informe favorable de los servicios técnicos correspondientes y dentro de los 30 días siguientes a la fecha de presentación de la factura. |
| **6.- KONTRATUAREN XEDE PRESTAZIOAK.** | **6.- PRESTACIONES OBJETO DEL CONTRATO.** |
| Erlojuen mantentzerako gutxienez lan hauek egin beharko dira, enpresa lizitatzaileak proposatuko hobekuntzei kalterik egin gabe :<br>▪ Hileroko bisitan:<br>*Koipea ematea.<br>*Ordua egiaztatu eta zuzentzea.<br>*Pisuak igotzea, hala badagokio.<br>*Soinu mekanismoetan eta kanpaietan doitze txikiak, etab.<br>*Kanpoko argiaren lanparak aldatzea, hala behar dutenean.<br>* Matxura edo akatsa duen elementu oro ordeztea.<br>▪ Urtean behin garbitu beharko dira erloju guztiak, horrela:<br>*Mugimendu garbiketa, gaizki dauden koipeak eta pilatutako zakarrak kentzeko.<br>*Mugimendu osoa koipeztatzea. | El mantenimiento de los relojes consistirá, sin perjuicio de su mejora por las empresas licitadoras en:<br>▪ Visita mensual para:<br>*Engrase.<br>*Comprobación y puesta en hora.<br>*Subida de pesas si procede.<br>*Pequeños ajustes de sonería, campanas, etc.<br>*Sustitución de lámparas de alumbrado exterior en las esferas que lo precisen.<br>* Sustitución de cualquier elemento defectuoso o averiado.<br>▪ Limpieza anual de todos los relojes consistente en:<br>*Limpieza de movimiento para retirada de grasas en mal estado y suciedad acumulada.<br>*Engrase completo del movimiento. |

| | |
|---|---|
| *kanpaien luzagarriak aldatzea, hala komeni bada.<br>*Instalazioaren ingurua garbitzea.<br><br>▪ Matxura gertatzen bada, bezeroak eskatuta behar diren bisita guztiak egitea.<br>▪ Erlojuen mantentzeko urteko memoria egitea eta urte amaieran entregatzea.<br>▪ Konponketa lan txikiak egitea: lanparak jartzea, kristalak, barnealdea txukuntzea, erremintak eskura jartzea, etab.<br>▪ Erloju patroia edo karilloia konpontzeko kendu beharra balego, bitartean ezaugarri berdineko beste bat jarriko du enpresa lizitatzaileak, Zumaiako Udalari kosturik gehitu gabe.<br>▪ Eskaintzek barnean hartu beharko dituzte kostu hauek: eskulana, zaindu eta mantentzeko lanetan behar diren material txikiak, joan-etorrien gastuak eta material eta erremintak garraiatzea.<br><br>**7.- HIZKUNTZA BETEBEHARRAK**<br><br>▪ Enpresak Udalarekin dituen idatzizko harremanak (kontratuak, fakturak, txostenak, memoriak...) euskaraz izango dira, administrazioaren lan hizkuntzaren araberakoak, edo bestela ele bitan.<br><br>**8.- BERDINTASUN BETEBEHARRA**<br><br>▪ Enpresak urtero Udalari aurkeztuko dion memorian ez da hizkera sexistarik erabiliko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko 4/2005 Legean ezarritako printzipioari jarraituz.<br><br>**9.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK.**<br><br>▪ Kontratua esleitzeko oinarri gisa | *Sustitución si procede de prolongadores de campanas.<br>*Limpieza del entorno de la instalación.<br>▪ Realizar todas las visitas necesarias solicitadas por el cliente por detección de avería.<br>▪ Elaboración de una memoria anual de mantenimiento de relojes, que será entregada a fin de año.<br>▪ Realización de pequeñas reparaciones, como colocación de lámparas, cristales, adecentamiento de habitáculos, equipar de herramientas en sus cuartos, etc.<br>▪ Si fuera preciso retirar el reloj patrón o el carillón para su reparación, la empresa licitadora facilitará una de las mismas características, por el tiempo que dure la reparación y sin coste para el Ayuntamiento de Zumaia.<br>▪ Las ofertas deben incluir los costes de mano de obra, suministro de pequeños materiales necesarios para los trabajos de conservación y mantenimiento, gastos de desplazamiento, transporte de materiales y herramientas.<br><br>**7.- REQUISITOS LINGÜISTICOS**<br><br>▪ Las relaciones escritas (contratos, facturas, informes, memorias, etc.) de la empresa con la administración serán en euskera, lengua de trabajo de ésta última, o en su caso bilingües.<br><br>**8.- REQUISITO DE IGUALDAD**<br><br>▪ La memoria que anualmente presente la empresa al Ayuntamiento tendrá que hacer un uso no sexista del lenguaje, siguiendo el principio establecido en la Ley 4/2005 para la Igualdad de mujeres y hombres.<br><br>**9.- CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN.**<br><br>▪ La adjudicación del contrato se llevará a cabo de acuerdo con los siguientes |

erabiliko diren irizpideak, garrantziaren eta egotzi zaien haztapenaren araberako hurren-keran, honako hauek dira:

-Eskaintza ekonomikoa..........80 ptu.
-Zerbitzurako hobekuntzak edo lizita-tzaileak proposatutakoak …… 10 ptu.
-Balioespen teknikoa …………10 ptu.

**- Eskaintza ekonomikoa: 80 puntu gehienez.**

Honako formula hau erabiliko da eskaintza ekonomikoa balioesteko:

B= Balioetsi beharreko eskaintzaren eta lizitazioaren oinarriko prezioaren arteko aldea x gehieneko puntuazioa
Eskaintza onenaren prezioaren eta lizitazioaren oinarriko prezioaren arteko aldea

**- Balioespen teknikoa: 10 puntu gehienez.**

Lizitatzaileek eranskin batean zerrendatu beharko dituzte egin beharreko lanak zein diren, bakoitzaren maiztasuna zehaztuta, eta erabiliko diren giza baliabideak eta materialak ere adierazita.

**-Zerbitzurako proposatutako hobekuntzak: 10 puntu gehienez.**

Hobekuntzak proposatzeko aukera egongo da zerbitzuen deskribapenean aztertutako esparru guztietan, Udalak nahitaezkotzat ezarritakoetan izan ezik.
Hobekuntzak:
- Gaur egungo argiztapenaren ordez LED erakoa jartzea ……………..…..…3 ptu.
- Instalazioa osatzen duten elementuak berritzea ……. 7 ptu.

**10.- ESLEIPEN-SORTAK**

Ez dagokio.

criterios, relacionados por orden decreciente de importancia y ponderación:
-Oferta económica....…………....…..80 pto.
-Mejoras a introducir en el servicio o propuestas por el licitador…… 10 pto.
-Valoración técnica………………10 pto.

**- Oferta Económica: 80 puntos máximo.**

La fórmula para la valoración de la oferta económica será la siguiente:

V= Diferencia precio entre oferta a valorar y base licitación x Puntuación máxima
Diferencia entre precio mejor oferta y precio base licitación

**- Valoración técnica: 10 puntos máximo.**

Los licitadores deberán presentar en un anexo el programa de los trabajos a realizar con especificación de la periodicidad de cada una de ellos, así como los medios humanos y materiales que se van a emplear.

**-Mejoras al pliego de condiciones: 10 puntos máximo.**

Se podrán proponer mejoras. Estas mejoras se podrán introducir en todos los ámbitos analizados en la descripción de los servicios, excepto en aquellos impuestos obligatoriamente por el Ayuntamiento.
Mejoras:
- Sustitución de iluminación actual por iluminación LED………………..…..3 pto.
- Renovación de los elementos que componen la instalación……. 7 pto.

**10.- EXISTENCIA DE LOTES**

No procede.

| | |
|---|---|
| **11- PREZIOAK BERRIKUSTEA** | **11- REVISIÓN DE PRECIOS** |
| Kontratu honen prezioa ez da berrikusiko. | El presente contrato no será objeto de revisión de precios. |
| Zumaian, 2017ko urtarrilaren 27a. | En Zumaia, a 27 de enero de 2017 |
| **Hirigintza eta Obren Saila** | **Departamento de urbanismo y obras** |